

VALVOSPAIN ENPRESAK EGOTZITAKO LANGILEEKIKO ELKARTASUNA ETA ORAIN AMURRIOK BERE BABESA EMAN NAHI DIO TUBACEXEKO ENPRESA BATZORDEAK DEITURIKO MOBILIZAZIOEI.

Aiarako eta Amurrioko langabezia zein enplegu ezegonkorra EAEko altuenetako bat izateaz gain, une honetan eskualdeko hainbat enpresaren krisia ere sortu da. VALVOSPAIN enpresak atek itxi ditu eta 79 langile kalean daude, eta TUBACEX enpresan 150 langile egotziko dira eta ia langile guztiek ABEE pairatuko dute.

Tubacexeko Enpresa Batzordeak mobilizazioan parte har dezaten eskatzen die eragile sozialei, politikoei, sindikalei, gainontzeko enpresa merkataritza guneko langileei eta auzokideei haien elkartasuna erakutsiz.

Orain Amurrio ados dago aurreko eskakizunarekin, hortaz, Tubacexeko Enpresa Batzordeak enpleguaren defentsaren alde deituriko mobilizazioei gure babesa ematen diegu. Herritarrei dei egiten diegu elkartasuna erakusteko mobilizazioetan parte hartuz.